#astekonomia

Azaroaren 9tik 13ra bitarteko astea

Euskal ekonomiaren termometroa 100,2an kokatu da



Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.

Urrian, euskal ekonomiaren termometroa 100,2an kokatu zen, hazkunde biziaren eremu barruan jarraituz. Adierazlea zertxobait apaldu da irailaren aldean, industriaren eta eraikuntzaren ahultzeagatik. Hala ere, zerbitzuen jarduerak eta kontsumoak zein inbertsioak bultzatutako barne eskari sendoak euskal ekonomiari eusten diote.

Enpresen sorrera hazi egin da irailera arte



Iturria: INE.

INEk argitaratu duenez, 2026ko urtarriletik irailera arte 3.042 enpresa berri sortu ziren Euskadin. Horrek esan nahi du %6,3ko igoera izan dela aurreko urteko aldi beraren aldean, eta urteko lehen bederatzi hilabeteetarako beste maximo bat lortu dela. Gainera, desegiteak %9,5 jaitsi ziren, eta ordaindutako kapitalak 171 milioi euroak gainditu zituen.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila

#astekonomia

Azaroaren 9tik 13ra bitarteko astea

Merkataritzako salmentak %2,1 hazi ziren

Merkataritza indizea

Urte bakoitzeko hirugarren hiruhilekoa



Iturria: Eustat.

Euskadiko merkataritzaren salmentak urte arteko % 2,1 gehitu ziren 2026ko hirugarren hiruhilekoan. Hazkundea handizkako (%3,3) eta txikizkako (%1,7) merkataritzaren gorakadan oinarritu zen, ibilgailuen salmenta eta konponketak %3,8 egin bait zuen atzera. Sektoreko enpleguak ere %0,9 gora egin zuen.

Aireko trafikoak %6,5 egin zuen gora urrian

Aireportuetatik bidaiatu duten pertsonak

Urte bakoitzeko urria. Milakoak



Iturria: AENA.

AENAren datuen arabera, **euskal aireportuetatik 797.000 pertsona inguruk bidaiatu zuten urrian.** Datu horrek baieztatzen du aireko trafikoak bere bultzadari eusten diola, urte arteko %6,5 igoz eta berriz ere hileko errekor historikoa lortuz. Urtarriletik urrira metatutakoa ere %10,6 hazi zen, 7.387.000 pertsona baino gehiagorekin.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila